

OKUPAZIO TERAPEUTAK

- 1.** HPBen aholkulariarekin lankidetzan aritzea HPBak dituzten ikasleen ebaluazio psikopedagogikoan, ikaslearen jarduera okupazionalari eragiten dioten trebetasun funtzionalak, zereginaren ezaugarriak eta inguruneko oztopoak baloratuz OT eskuhartze arloetan: esku-funtzioa eta eskolako ohiko tresnen erabilera, Eguneroko Oinarrizko Iharduera (EOI), oinarrizkoak eta instrumentalak, Informazioaren eta komunikazioaren teknologietara (IKTetara) sarbidea, komunikaziorako sarbidea, ergonomia eta postura kontrola, parte-hartze soziala espazio ezberdinetan, jolasa, ingurunearen egokitzapena, curriculumaren egokitzapena.
- 2.** Ikasleak behar dituen laguntza- produktuak, materialak eta altzariak baloratzea, hautatzea eta/edo egokitzea, horiek erabiltzeko aholkuak ematea eta erabiltzen trebatzea.
- 3.** HPBak dituzten ikasleen jarduera okupazionala errazteko programak egiten, garatzen, gauzatzen eta elkarrekin ebaluatzen parte hartzea, beste profesional batzuekin batera aurrera egiteko aukerak identifikatuz eta tutorearen koordinaziopean, curriculum- esparruaren barruan eta Norbanako Jarduera Plan baten barruan okupazio terapiako eskuhartze-arloetan lanketa eta trebatzea eginez.
- 4.** HPB-biltegia eta HPBak dituzten ikasleen curricukumean sartzeko laguntza- produktuak antolatzea, kudeatzea, kontrolatzea eta koordinatzea.
- 5.** Koordinazio-bileretan parte hartzea eta ikaslearekin jarduten duten gainerako profesionalekin koordinatzea, HPB aholkulariaren zuzendaritzapean eta orientabideekin. Horretarako, irizpide aditua emango du, tutoreak koordinatutako Norbanako Jarduera Planean hezkuntza-erantzuna antolatzeko.
- 6.** Laguntza-produktuen, materialen eta egokitzapenen informazio gaurkotua izatea, eta eskaerak eta konponketak bideratzeko enpresa fabrikatzaile eta hornitzaileekin harremanak izatea.
- 7.** Familiei, aholkuak eta orientazioa ematea, terapia okupazionalan esku hartzearekin lotutako alderdietan lagundu ahal izan dezaten.
- 8.** Urteko plana eta memoria egitea, bai eta lan egin den ikasleei buruzko txostenak ere.
- 9.** Ergonomiarekin lotutako antolamendu- alderdiei eta banakako arretari buruzko aholkularitza ematea irakasle-taldeari, arreta ematen dieten ikasleen parte- hartzea eta curriculumerako sarbidea errazteko.
- 10.** Irakasle-taldearekin eta hezkuntza- langileekin lankidetzan aritzea, proposamen didaktikoak ikasleen beharretara egokitzeko, eta curriculumerako sarbidea eta eskola- partaidetza errazteko.
- 11.** Lanpostuari dagokion beste edozein.